



Kiribil Konpainiak aurkezten du:

MAITEDER

Denendako haur ikuskizuna

TEASER edo FILM LABURRA :
<https://vimeo.com/1111635911>



Sarrera

COVID osasun krisiak eta lehen itxialdiek, askorentzat, galdera ugari sortu dituzte, eta gaurko beldurra eta egoera kezkarriari alternatiba bat eskaintzeko nahian piztu da sorkuntza berri hau.

Bidaia, beti, itxaropen, askatasun, truke eta irekitasunaren eramailea izan da.

Sorkuntza berri hau, elgarrekin bidaia bat bizitzea du helburu, irria eta emozioak elgar partekatuz.

Gaurregun, geografikoki bidaiatzea zaila eta korapilatsu bihurtzen da ; gainera bidaiatzeko aukera, aspalditik, ez da deneri eskainia...

Alta bidaiak bestearen ezagutza egiten laguntzen du.

Baina BIDAIA MOTA EZBERDIN AINITZ daude, eta askotan ahazten duguna (alta beti eskuragarri izango duguna), hauxe da: **irudimenaren bidez egindako bidaia fantastikoa.**

Idea sortu da eta Amaia Hennebutte, konpainiako zuzendari artistikoak, eta Fabrice Jacob, konpainiako artistak, gai honen inguruko sorkuntza artistikoa eramateko nahia eta asmoa izan dute.

Lan bilketa bat hasi zen : erreferentzia literarioak, musikalak, artistikoak, dokumentalak eta poetikoak, batez ere **Xabier LIZARDI** euskal olerkaria, eta **Irène COLOMB-JACOB**, frantses poetaren lanen inguruan.

Ondoren inprobisazio ikerketak egin ziren, eta azkenik, ikuskizunaren sorkuntza eraiki zen.

Lankidetza

Kiribilek euskaraz sortu nahi du, eta euskal gizarte osoarengana jo nahi du ere. Horregatik hegoaldeko bazkide artistiko batekin lan egin nahi izan zuen.

Balio berdinak partekatzen dituen Dejabu Panpin Laborategia konpainiarekin (Errenterian egoitza duena) lotu da Kiribil, eta 2019-2020. urteetan, generoaren gaiaren inguruko sorkuntza lan bat elgarrekin eraiki zuten: URMAELA.

Biziki emankorra izan den esperientzia hau berritu nahi izan dute bi konpainiek.

Horretarako berriro **mugaz gaindiko koprodukzioa** sortu da hemen, eta **Ainara Gurrutxaga** da berriro antzezlan honen **taula zuzendaria**.

Materialen, erreferentzien eta ohiko desioen inguruko lehen trukaketen ondoren, sormen egonaldiak 2021eko martxoan hasi ziren, estrenaldia 2022-ko maiatzaren 14-erako.

Aurkezpena: « MAITEDER » eta POESIA

Ikuskizunaren jatorria poesia da, eta bereziki Xabier LIZARDI eta Irène COLOMB-JACOB obren inguruan oinarritzen da.

Xabier LIZARDI, euskal poeta

Xabier LIZARDI, Euskal Poeta, Zarautzen sortu zen 1896. urtean, eta Tolosan zendu, 1933. urtean.

1931. urtean, EUSKO-BIDAZTIARENA olerkia idatzi zuen, eta bertan bere maitalea « **MAITEDER** » izendatu zuen.

Poema honetan, Lizardik ezkonbidaia bat imajinatzen du.

Ezkonberriak : poeta eta hizkuntza, euskara, munduan zehar, munduaz harantzago ere, unibertsoan barrena, izarretaraino... doazte.

Horrela, Etxeparek (*Heuscara, / ialgi adi kanpora (...) Heuscara, / habil mundu guzira*"), 400 bat urte lehenago euskarari mundura irten zedin, zuzendutako gonbidapena errepikatzen du Lizardik : helburua ez da, noski, euskara mundu osoan zehar zabal dadin, mundua euskaran sar dadin baizik.

Lizardiren bizitza eta lan literarioa BIDAIA oinarritzen da, eta idazleak hiru bidaia mota burutzen ditu: barruranzko bidaia, ingururanzko bidaia eta urrutiranzko bidaia.

- BARRURANZKO bidaia (« *Biotzean min dut* », « *Ondar-gorri* », « *Etxeko kea* »...olerkiak), non bidaia bilakatzen den jaitsiera sakona, gizakiok, guztiok geure muin-muinean dugun eta nekez ezagut daitekeen eremu horretara.

- INGURURANZKO bidaia (« *Bultzi lehiotik* », « *Oi, lur, oi, lur* » ... olerkiak), non bidaia bilakatzen den, Lizardi gisa, sinpleki gure ingurura irtetzea, gure ingurumarietan ibiltzea, eta orduan, ezagutzen duguna eta egunerokoa apreziatzea.

- URRUTIRANZKO bidaia (« *Eusko- bidaztiarena* » olerkia, eta « *Alain Gerbault. Itxasozti bakartia* » idazlana): leku urrunetarantz egindako honetan, egiazko bidaia baten ohiko osagarriak aurkitzen dira: helburu edo jomuga bat, prestaketak eta abiatzea, paraje ezezagun eta ezohikotan barna jarraitutako ibilbidea, harreman berriak, abenturak eta topaketak, eta, agian, itzulera.

MAITEDER ikuskizuna ber-bidetik doa : egongela batean, bi pertsonaiek sekulako bidaia egingo dute eta abenturak biziko dituzte, zerbaiten bila dabilenean, MAITEDERren bila.... Barruranzko bidaia sakona, ingururanzkoa eta urrutiranzko bidaiak...



Irène COLOMB-JACOB, poeta frantsesa

Irène COLOMB-JACOB poeta frantsesa da, 1923an Lot-et-Garonen jaio eta 2003an hil zen.

Poesian egindako lana Frantziako Akademiak koroatu zuen, eta bere sorkuntza bakoitzak sari nabarmenak jaso zituen.

1952an hasi zen Saiakerak idazten, 29 urte zituela, frantses irakasle izan zenean.

1965ean, "ARC-EN-CIEL DE MON COEUR" olerki bilduma bat idatzi zuen, Société des Gens de Lettres-ek koroatuak, eta hainbat artistekin kolaboratu zuen, bereziki URIA-MONZON ilustratzailearekin, edo ipuin-kontalariekin poesia diskoetan grabatzeko.

1968an, "LA MOUETTE BLEUE" obra, A.M.J.M. Parisen saristatua izan zen.

1973an, "LE LYS DES SABLES"-k Pierre Daguerre saria jaso zuen Miarritzen, eta 1977an, bere "CORALLINES" liburua finalista handia izan zen Canneseko 7. Côte d'Azur bienalean.

1982an, bere "POINTS D'ORGUE" poema bilduma Frantziako Akademiak koroatu zuen.

Bere liburu guztiak eskuz inprimatu eta konposatuak izan ziren, serie mugatueta.

"L'ASTRONAUTE" olerkia, 70 eta 90eko hamarkadetako nerabe frantses guztiek ezagutzen dute, LAGARDE eta MICHARD Bilduman agertzen baita (literatura frantsesa eskola-liburua da hau, eta ezinbesteko erreferentzia izan dena, irakasleek aspaldian erabilia.)

MAITEDER ikuskizunak Irène COLOMB-JACOB-en poema batean du jatorria:
"VOYAGEUR AJOURNE", 1973an argitaratutako "LE LYS DES SABLES" bildumakoa.

"Bidaiari atzeratua"

Ni naiz bidaiaria.
Armairuan maleta prest neukan.
Baina abiatzeko unean,
armairuko giltza galdu egin nuen.
Ni naiz,
milaka urteetan,
goizero
bere abiatzea
etengabe atzeratzen duen bidaiaria.
Nire begiradak geltokirantz ihesi doan
errailari jarraitzen dio
Non bihotzak trena hartzen duen
zikaden katurako.
Baina nire atzamarrak balkoiaren erretiluan
estututa daude:
Harrian txori batek nire izena grabatu berri du.

IZENBURUA : MAITEDER

FORMATUA : Ikuskizunak bi formatu dauzka :

1/ Antzokiendako: 2 antzezle oholztan, eta argi fitxa tekniko bat dago.

2/ Ikastetxeendako: hemen hellburua da, ikastetxe eta ikasgela guztietan ikuskizuna jokatu ahal izatea, eta beraz, modu honetan, autonomoak izatea, bai alderdi teknikoan, baita ere haurren harreran. Asmoa da ere publikoarekiko hurbiltasun handia izatea. Ondorioz, kopurua nahitaez murriztua da, eta gutxi gorabehera, klase bat edo bi klaseko ikasle kopurua da.

2 antzezle daude oholztan.

PUBLIKOA : Ikuskizun hau guztiei zuzenduta dago, eta bereziki 5 urte goitiko haurrentzat.

BEHAR TEKNIKOAK (edozoin formaturendako) :

- espazio hutsa 5m x 4m
- publikoa oholtzaren inguruan kokatzen da
- entxufe bat.

IRAUPENA : 45 minuta.

HIZKUNTZA : Euskaraz.

LUZAPENAK :

Bi artistek, ikuskizunaren ondotik, publikoari MAITEDER mundu berri bat sortzea proposatzen die, baita ere eztabaida une bat.



Talde Artistikoa

Idazketa eta taula zuzendaritza : Ainara Gurrutxaga (DEJABU konpainia)

Idazketa eta antzezlana : Fabrice Jacob eta Amaia Hennebutte (KIRIBIL Konpainia)

Musika Konposaketa eta Musikaria : Fabrice Jacob

Ezenografia : Ainara GURRUTXAGA

Binilo Musikak : LOVE STORY / SWING THE MOOD / VANGELIS (Nocturne).



SORKUNTZAren EGUTEGIA

2020-ko irailetik 2021-ko martxoa arte: ikerketak, azterketak, irakurketak, elkarrizketak, trukaketak eta eztabaidak, antzezle eta taula zuzendarien artean.

2021-ko martxoaren 15-etik 18-ra: lehen sorkuntza egonaldia, lau egunez.

Ainara Gurrutxaga bi antzezleekin Amaia eta Fabrice.

Kokapena: Erreterian, Niessen antzokian.

2021-ko irailaren 6-etik 9-ra: bigarren sorkuntza egonaldia lau egunez.

Ainara Gurrutxaga bi antzezleekin Amaia eta Fabrice.

Kokapena: Erreterian, Niessen antzokian.

2021-ko urriaren 18-tik 21-era: hirugarren sorkuntza egonaldia, lau egunez.

Ainara Gurrutxaga bi antzezleekin Amaia eta Fabrice.

Kokapena: Erreterian, Niessen antzokian.

2021-ko urriaren 25-etik 29-ra: laugarren sorkuntza egonaldia, lau egunez.

Ainara Gurrutxaga bi antzezleekin Amaia eta Fabrice.

Kokapena: Erreterian, Niessen antzokian.

2022-ko otsailaren 14-etik 15-era: bi lan egun.

Ainara Gurrutxaga bi antzezleekin Amaia eta Fabrice.

Kokapena: Erreterian, Niessen antzokian.

2022-ko maiatzaren 9-tik 13-ra: bostgarren sorkuntza egonaldia, aste batez.

Ainara Gurrutxaga bi antzezleekin Amaia eta Fabrice.

Kokapena: Erreterian, Niessen antzokian.

2022-ko maiatzaren 14a: ESTRENALDIA, LEHEN IKUSKIZUNA HEGOALDEAN.

Kokapena: Erreterian, Niessen antzokian.



LEKUAK eta PARTAIDEAK

Koprodukzioa:

- Dejabu Panpin Laborategia Konpainia
- Erretereria, Niessen Antzokia
- Erretereriako Udal Kultura Zerbitzua eta herriko eskolak
- Euskal Kultur Erakundea
- Senpere, Larreko Kulturgunea
- Senpere, Udaletxea.



Hedapena:

- Erretereria Antzerki Eskola - Erretereria
- Udala eta eskolak - Erretereria
- Udala eta eskolak - Senpere
- iparralde eta hegoalde lurraldeko eskoletan
- « Ecoles du monde » - Besely, Madagascar

Haur txikiendako ikuskizunaren EGOKITZAPENA

MAITEDER ikuskizuna ume txiki-txikiendako, 6 hilabetetik goiti, egokituko da, haurzaindegietan eta ama- eskoletan jokatzeko gisan.

Kiribil Konpainia

MALRAUX –ren esaldia: « **Artea, gizon batetik bestera dagoen bide laburrena da** », Kiribil konpainiaren lema bihurtu egin da.

Eskaintza artistiko eta kulturaletik urrun eta baztertuak dauden ikusleengana doa Kiribil, eta haien bizitokietan sartuz, ikusle izatetik sortzaile izatera bultzatzen ditu. Izan daitezke ume ttiki-ttikiak (6 hilabetetik goiti) haurtzaindegietan, adinekoak zahar-etxeetan, gerrako errefuxiatuak, gaixotasunak dituzten pertsonak zentro mediko-sozialetan (Alzheimer gaixotasuna, eskizofrenia, autismoa...).

Konpainiaren sorkuntzek guztion sortzaile arima esnatu nahi dute, eta une artistiko baten inguruan, parentesia poetikoa eskaintzen dute.

Konpainiaren jatorria euskal kultura eta hizkuntza da, kideen nortasunaren oinarri bateratzailea denean.

Lehen ikuskizuna: "*Orobil Borobil*" haurtzaindegietan ñiñiendako jokatu zen, eta publiko berezi honekin bat egiteko aukera eman zion.

"*Baiu*" bigarren sorkuntza (Amaiaren "Lapiñu" album-ilustratutik inspiratua) haurtxoentzako ere egokitu zen, eta haurtzaindegietan antzeztu zen.

Hirugarren sorkuntzak: "*iZ*" (3 urtetik aurrera) mitoa modernotasunean inskribatu zuen, eta espazioaz, denboraz eta hizkuntzaren jatorriaz hitz egiten zuen.

"NUNDIK" 6 hilabetetik haurrentzako egokitapena sortu zen garaian, laugarren sorkuntza izan zen hau.

Bi sorkuntza hauek honako bazkideen laguntza izan zuten: Hego Euskal Herriko Hirigunea, Euskal Kultur Erakundea, Teatro Paraiso, Biarritz Culture, Hameka eta Maule hiria.

Bostgarren sorkuntza "*SABLEak*" ume txiki-txikiei zuzenduta, gaur egun haurtzaindegi eta antzokietan antzezten da.

Seigarren sorkuntzak "*URMAELA*", haurrei zuzenduta (5-10 urte), eta "*URMAELA TXIKI*" (6 hilabetetik goiti) gaur egun haurtzaindegietan, eskoletan eta antzokietan antzezten da.

MAITEDER beraz, Kiribil konpainiaren zazpigarren sorkuntza proiektua da.

ARTISTAK



Amaia Hennebutte, kondalaria eta antzezlea.

Eskoletako andereñoa izana, gaur egun haur literaturan idazle-illustratzailea da, baita ere Kiribil konpainiako zuzendari artistikoa, kondalaria eta antzezlea.

Mimoa, pailazoa, antzerkia eta ahotsaren inguruko ikastaroen bidez formatzen da, besteak beste, Euskal Herrian, Bordalen eta Parisen, Yvan Bachiocci-ren Gorputz Mimo Eskolan, Samovarreko pailazoen eskolan eta Roy Hart eskolan.

KIMU saria irabazi zuen 2016an. Ondorioz sorkuntza eta haur eta gazte ikuskizun munduak hobekiago ezagutu, sakondu eta aberastu ahal izan zituen, diru laguntza bati esker formakuntzak jarraituz, baita ere Frantzian zehar, haur ikuskizun espezializatutako jaialdietan bertaratuz.

Bide artistikoen erdigunean, denen sentsibiltatea pizteko ikuskizunak sortu eta antzeztu nahi ditu.

Azkenean, Kiribil, "filtro gabeko" ikusleengana eramane du: ñiñiak, ume oso txikiak, adinekoak eta / edo gaixoak, gerrako errefuxiatuak ...

Idazle-illustratzailea da ere, eta 15. album-ilustratua argitaratua du. Bere lan asko eszenatokira antzeztuak izan dira: hala nola "Otso", Théâtre des Chimères-ek 2013an antzeztua, "Lodikroko" 2007an Elirale konpainiak egokituta (2016an berriro hasi zen), baita ere "Himalaya" 2012. urtean. Bere liburuak eta albumak GATUZAIN, IKAS eta ZTK-k argitaratu dituzte.

Azkenean, Donostian dagoen GALTZAGORRIko lehendakaria da ere, 30 urte baino gehiago daraman elkarteak, Euskal Herri osoko haur literatura euskaraz sustatzeko eta garatzeko ezinbesteko erreferentzia bihurtu dena.

Fabrice JACOB, musikaria eta antzezlea.



Bidaiazeko eta argazkilaritzarako duen grinak munduko kontinente guztietara gidatu du, batez ere Asian eta Hego Amerikan, murgiltze luzeekin, urruneko kulturak eta herriak ezagutuz.

Ingurumenarekiko sentibera, energia berriztagarrietan enpresa nagusi izan zen hogeitaz.

Gaztetatik borroka-tekniketan eta Txinako energian trebatua da, borroka-arten irakaslea ere izan zen.

Indiako eta Afrikako perkusioak aurkitu eta sakondu zituen Indian, Senegalen eta Bordeleko hainbat formaziotan.

Gaur egun argazkilaria, gitarrista, perkusionista eta aktorea da.

Kiribil konpainiak dituen baloreei atxikita, 2021ean Konpainian sartu zen.



Ainara GURRUTXAGA, taula zuzendaria.

Ainara Gurrutxaga Dejabu antzerki konpainiako zuzendarietako bat da. Informazio Zientzietan lizentziatua da eta Komunikazio, Semiotika eta Hizkuntzan masterduna Euskal Herriko Unibertsitatean.

2005-2007 urteen artean Arte Dramatikoan graduatu zen Londoneko London International School of performing Arts (LISPA) eskolan. Frantziako Phillipe Genty eta Ingalaterrako Complicité konpainiarekin osatu du antzerki formakuntza.

Gaur egun antzerki idazle, zuzendari eta antzezle gisa egiten du lan.

2001. urtean, Urko Redondorekin Dejabu konpainia sortu zuenetik, ordutik arrakasta handiko antzezlanak sortu ditu, horien artean *Gizona ez da txoria* (2009, ACT jaialdia sormen berritzaileari lehen saria, Praga International Puppet Festivalen zuzendari onenaren saria, eta Subotica theatre festibalen antzezpen onenari saria, besteen artean); *Errautsak* (2010ean Donostia Antzerki Saria), *Azken portua* (2011) *Gure bide galduak* (2011an Donostia Antzerki Saria), *Hamlet* (2013), *Arrastoak* (2014ean Donostia Antzerki Saria), *Francoren bilobari gutuna* (2016) eta *Linbo planeta* (2018).

Zaldi Urdina antzezlanaren sormenean murgilduta izan da ere, Artedrama eta Axut konpainiekin batera.

Konpainiaren antzezlan gehienak argitaratuak izan dira.

Kolaborazio ugari egin ditu azken urteetan beste hainbat konpainiekin, dela Limbik konpainia ingelesarekin, dela Le Petit théâtre de Pain, Artedrama, Anakrusa Antzerkiola Imaginarioa, Tanttaka, Metrokoadroka, Ttak, Gar eta Rouge Elea konpainia euskaldunekin.

Antzezle gisa besteen artean *Amaren eskuak* (Mireia Gabilondo, 2012) eta *Belarra* (Koldo Almandoz, 2009) ikusentzunezkoetan parte hartu du eta gaur egun Harkaitz Cano idazlea eta Amorante musikariarekin Anne Sextonen lanean oinarritutako *Ene Maite Kuttun guztiak* ikuskizunean ere aritu da.



HARREMANA

Kiribil

Zuzendaritza artistikoa
Amaia Hennebutte
amaia@kiribil.net
33 (0)6 72 62 08 14

Ekoizpena- Hedapena
Fabrice Jacob
prodkiribil@gmail.com
33 (0)6 16 50 89 71



SIRET : 75 13 40 084 000 19 - APE : 900 1 Z - N° Association : W641004579
Licence 2 : N° 2-1081992 - Licence 3 : 3-1081993
KIRIBIL Konpainia, LARREKO Kulturgunea, 2 Xan Ithourria plaza, 64310 Senpere.

<http://kiribil.eus>